

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Enpresaren Ekonomia USE 2022

www.ehu.eus

Ez ahaztu azterketa-orrialde bakoitzean kodea jartzea

Azterketa honek bederatzi galdera ditu (zortzi 2 puntukoak eta bat 4 puntukoa). Erantzuteko, bi aukera dituzu:

- bi puntuko bost galderari erantzutea***
- bi puntuko hiru galderari eta lau puntukoari erantzutea***

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte

1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Irakurri testua, eta erantzun galderari:

14.000 ETEK KALERATUKO DUTE GUTXIENKO SOLDATAREN IGOERAGATIK

Etorkizun handiko suspertze ekonomikoa ez da iristen ekoizpen-sarearen zati batera, **ETE**etara. Plantilla ertaina edo txikia duten enpresek likidezia eta kaudimen arazo larriak izaten jarraitzen dute, eta hori areagotu egin da **Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren** azken igoerarekin: hilean 965 euro. 14.000 enpresak, gutzizkoaren %5ek, kaleratzeren bat egin beharko dute.

Administrazio Kudeatzaileen Elkargo Ofizialaren azken txostenak agerian uzten du lau enpresa txiki eta ertainetik batek zailtasun nabarmenak dituela: Gizarte Segurantza ez ordaintzeak, atzerapenak hornitzaileei eta finantza-erakundeei egindako entregetan. Datu horiek azaltzen dute ETEen heren batek galerak izan dituela aurtengo ekitaldiko lehen sei hilekoan, eta 130.000 hartzekodunen lehiaketan daudela, Gobernuak luzapena onartu arren. Testuinguru horretan, ez da harrizkoa gailuzko ezegonkortasun handia duen sektore bat are gehiago itotzea.

Zehazki, ETEen %65 modu larrian edo oso larrian jasaten ari dira energiaren, inflazioaren, LGSaren eta lehengaien igoerak. Horregatik, administrazio kudeatzaileek laguntzen eginkizuna eta kudeaketa azpimarratu dituzte. Hamarretik lauk behar ditu, baina gaur egun ia %10era iristen dira sartzeko baldintzak gogortu ondoren.

Zailtasunek, itxiturei eta kaleratzei ez ezik, **ezkutuko ekonomiaren** hazkundeari ere eragingo diote. Datu horiek, berez, oso larriak badira, kezkarriena da ETEen %18k (500.000 baino gehiago) oso modu larrian planteatzen ari direla sistematik kanpo utzi eta ezkutuko ekonomian lan egitea.

Era berean, onartzen da egoera hobetu egingo dela, baina eskatzen da inor atzera ez uzteko, diru-laguntza publikoen lerroa eta luzamenduak ahalik eta gehien zabaltzea, eta ildo horretan beste neurri batzuk onartzea.

Galderak:

- Definitu eta azaldu testuan azpimarratutako hitzak.
- Testuak 2021ari egiten dio erreferentzia. Ze iritzi duzu prentsa-artikulu honetan azaltzen denari buruz? Arrazoitu erantzuna.

2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

ONDO JAN jatetxeak menuak eskaintzen ditu eguerdian. 8.000 €ko kostu finkoak ordaindu behar ditu hileroko jarduerara aurrera eraman ahal izateko. Menu bakoitzeko kostu aldakorra 5 €koa da. Salmenta prezioa 12 €koa da. Jatetxeak hilean eskaini ditzakeen gehieneko zerbitzuak 2.000 menu dira.

Datu hauekin, kalkula ezazu:

- Zein den errentagarritasun ataria edo puntu hila.
- Zein izango litzateke hileko emaitza gehieneko zerbitzuaren kantitatea %80a zerbitzatzen bada.
- Egin ezazu puntu hilaren adierazpen grafikoa eta azaldu ezazu esanahia.
- Menu bakoitzeko kostu aldakorra 7 izatera pasatzen bada eta azken boladan gehieneko zerbitzuaren kantitatea %40a zerbitzatzen bada, zein izan beharko litzateke gutxienezko salmenta prezioa, galerarik ez izateko?

3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

PEREIRA enpresak izozkiak ekoizten ditu. Azukrea modu erregularrean SUGAR enpresari erosten dio. SUGARren hornikuntza-epea 10 egunekoa da. PEREIRA 50 kilo azukreko segurtasun-stocka mantentzen du, ezustekorik ez gertatzeko. Urtean 7.200 kilo azukre kontsumitzen ditu izozkiak egiteko. Azukre eskaera-optimoa hilabeteko kontsumoaren berdina da. (Oharra: hileak=30 egun eta urteak=360 egun)

Datu hauekin, kalkula ezazu:

- Eskaera puntua.
- Batez besteko stock maila.
- Errotazio indizea.
- Adierazi grafikoki egoera.
- Zer gertatuko litzateke greba baten ondorioz eskaera 3 egun atzeratuko balitz?

4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

Aukera ezazu aukera zuzena zirkulu bidez (okerreko erantzunagatik zigorrik ez).

- 1) Lehiarako abantaila bat:
 - a) Gure enpresak duen indarra da, eta ez du beste lehiakiderik.
 - b) Enpresak lehiatzen duen merkatu guztietan produktu bera eskaintzea da.
 - c) Enpresak beti irabaziak lortuko dituela adierazten du.
- 2) Biztanleria langabea ...:
 - a) Biztanleria ez-aktiboa da.
 - b) Biztanleria aktiboa da.
 - c) Biztanleria okupatua da.
- 3) Adierazi hauetatik zein den egia:
 - a) BPGak kontuan hartu behar ditu herrialde bateko bitarteko zein bukaerako ondasun eta zerbitzuak.
 - b) BPGak herrialdeko amaierako ondasun eta zerbitzuen baturak bakarrik hartzen ditu kontuan.
 - c) BPGak herrialdeko bitarteko ondasun eta zerbitzuak bakarrik hartzen ditu kontuan.
- 4) Estatuak merkatuaren desorekak zuzentzeko parte hartu dezakeen sistema ekonomikoa hau izango da:
 - a) Planifikazio zentralako sistema.
 - b) Merkatu-ekonomiako sistema.
 - c) Ekonomia mistoko sistema.
- 5) Enpresa baten merkatu-kuota jaitsi egiten da, baldin eta...
 - a) Enpresaren salmentak eta lehiakideen salmentak proportzio berean jaitsi badira.
 - b) Enpresaren salmentak lehiakideenak baino gehiago jaisten badira.
 - c) Enpresaren salmentak handitzen badira eta lehiakideen salmentak ere proportzio berean gotzen badira.
- 6) Enpresaren aktiboaren higaduragatik sorturiko amortizazioek:
 - a) Ez dute eraginik kontabilitatean.
 - b) Ez dute eraginik galera irabazien kontuan.
 - c) Zeinu negatiboarekin kontabilizatzen dira enpresaren aktiboan.²¹
- 7) Sozietate mugatuetan:
 - a) Gutxieneko eratze-kapitala 60.101,21 € da.
 - b) Kapitala akziotan banatuta dago.
 - c) Kapitala partizipaziotan banatuta dago.
- 8) Zeri deitzen zaio stock-haustura?
 - a) Eskaera bati aurre egiteko izakin gabe gelditzea.
 - b) Biltegi batean matxura izatea.
 - c) Aurreko bietako bat ere ez da zuzena.

- 9) Hau da biztanleria aktiboaren eta biztanleria osoaren arteko zatidura. zaió:
- Okupazio-tasa.
 - Langabezia-tasa.
 - Jarduera-tasa.
- 10) Enpresa bateko balantzean, zer adierazten du "bezeroak" kontuak?
- Enpresak dituen bezeroen zerrenda.
 - Kobratzeko dituen fakturak.
 - Enpresak bete gabe dituen eskaerei dagozkien bezeroen zerrenda

5. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

Maiatzean, PIPU enpresaren biltegi-mugimenduak honako hauek izan dira:

Data	Mugimenduak
01-05.....	2.000 unitate erosi ditu, 180 €/unitateko, "X" hornitzaileari
03-05.....	1.500 unitate saldu ditu, 250 €/unitateko
07-05.....	300 unitate saldu ditu, 275 €/unitateko
10-05.....	2.500 unitate erosi ditu, 190 €/unitateko, "Y" hornitzaileari
15-05.....	900 unitate saldu ditu, 188 €/unitateko
21-05.....	100 unitate saldu ditu, 199 €/unitateko
30-05.....	3.000 unitate erosi ditu, 200 €/unitateko "Z" hornitzaileari
31-05.....	1.300 unitate saldu ditu, 185 €/unitateko

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu maiatzeko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) balorazio-metodoak erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa

6. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

NORBERA enpresaren plan estrategikoan atzerriko merkatuetan gehiago saltzea jasotzen da. Hori lortzeko, bi inbertsio-proiektu aztertu nahi ditu:

- A proiektua. Hasierako despoltsapena 75.000 € da, eta egitasmoaren bukaeran, 15.000 €-ko hondar-balioa lortzea espero da. Horretaz gain, honako diru-sarrerak eta ordainketak hauek aurreikusten dira:

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Diru-sarrerak	35.000 €	52.000 €	55.000 €
Ordainketak	12.000 €	15.000 €	25.000 €

- B proiektua. Hasieran 50.000 €-ko despoltsapena egin behar da, eta aurreikusten diren kutxa-fluxuak honako taula honetan jasotzen diren datuen arabera dira:

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Kostu osoa	17.800 €	16.600 €	25.000 €
Salmenta-prezioa unitateko.	25 €	25 €	25 €
Ekoiztako/saldutako unitateak	1.200	1.300	2.400

Kontuan hartuta inflazio-tasa %2 izango dela urtez urte eta lortu nahi den errentagarritasun minimoa %7 dela:

Kalkula ezazu:

- a) Zein inbertsio aukeratu beharko luke berreskuratze-eparearen irizpidea (Pay Back irizpidea) erabiliz gero? Arrazoitu erantzuna.
- b) Eta zein inbertsio aukeratu beharko luke balio eguneratu garbiaren irizpidearen arabera (BEG irizpidea)? Arrazoitu erantzuna.
- c) Bi irizpideetatik (BEG edo Pay Back), zein da egokiena? Zergatik?

7. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

ORUE S.A-k 10.000 akzio erosi ditu, Otsailaren 1a akzio bakoitzeko 50 € ordainduz. uztailaren 31ean, akzio horiek saltzen ditu, akzio bakoitzeko 70 € kobratuz.

Dibidendu gisa, 2 € akzio bakoitzeko jasoko du eta salmentaren gainbalioa.

Zein izan da enpresa honek izan dituen urteko errentagarritasuna? Kontutan hartuz enpresak honelako diru-sarrerak izan dituela epealdia osoan zehar (6 hilabete)

8. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 4 puntu.

BYZAPI S.A. enpresa zapiak egiten eta merkaturatzen aritzen da, eta ondare-datu hauek aurkezten ditu 2021aren amaieran:

1. Laborak Kutzari , 5 urteko epean itzuli beharreko 80.000 € ko mailegua.
2. Kutxabankeri, 10 hilabeteko epean itzuli beharreko 9.000 € ko mailegua
3. Kontu korrontean 8.000 € ditu
4. Zapiak egiteko makinaren balorizazioa 73.000 €ko da.
5. Eraikinaren balorazioa jarduerarako 150.000 €ko da
6. Biltegian 10.000 € ko balioa duen zapiak ditu saltzeko.
7. Bulegoko mahai, apal, aulki eta bestelakoek 7.000 € ko balioa dute.
8. Ordenagailuek 3.500 € balio dute.
9. Biltegian dituen zapietatik 4.000 € ordaindu gabe ditu.
10. Ogasun Publikoarekin, BEZ a dela eta 1.000 € ko zorra du.
11. Gizarte segurantzarekin 1.500 € ko zorra du.
12. Bulegoan bertan ordainketa txikiak egiteko 600 € ditu.
13. Denda batek zapiak erosteagatik 1.000 € zor dizkio.
14. Makina erosterakoan ez zuen guztiz ordaindu eta 10 hilabetez ordaindu beharreko 5.500 € zor dizkio makina saldu zionari.
15. Ibilgetu materialeko elementuek izandako balio galera 3.000 €koa izan da.
16. Enpresaren kapital soziala???
17. Erreserbak 5.000 €

Datu horiekin, honako hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea eta kapital soziala kalkulatzeko.
- b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko, irudikatzea eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Likidezia.
 - Autonomia.
 - Bermea.
 - Zorpetzea.

9. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Definitu itzazu termino hauek:

- Zerga zuzenak.
- Zeharkako zergak.
- Politika fiskal progresiboa.
- Kostu finkoak.
- Kostu aldakorrak.
- Kostu osoak.

2022



ENPRESAREN EKONOMIA. ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK. 2022

Probak bederatzi galdera ditu (2 puntuko zortzi eta 4 puntuko bat). Bi puntuko bost galderari erantzun behar zaie, edo, bestela, bi puntuko hiru galderari eta lau puntukoari. Galderak baloratzeko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAN ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute irakasleek.

2 puntuko galderen artean, hauek daude:

* Ekonomiari buruzko dibulgazio-testu bat, hedabide sozialetatik hartua, eta eskatzen da edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea. Galderetan, termino batzuk aurkeztutako testuan zer esanahi duten azaltzea eskatzen da, edo testuarekin erlazioa duen argudio ekonomikoren bat azaltzea. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

* Galderetan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Teknika egokiak menderatzea eta lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko dira.

* Galderetan, ekonomiaren arloko terminoen ezagutza eta termino horien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Balantze-analisi bat ere egiten da proban. Galdera horrek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desoreka eta desdoitze posibleak hautemateko gai izatea. Bereziki balioetsiko da ikasleak emaitzen zentzu ekonomikoa ulertu eta interpretatzea. Akats aritmetikoen kasuan, ikasleak egiten duen arrazoibidearen ebaluazioak lehenetsia izan behar du zenbakizko emaitzaren zuzenketaren aldean.

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: ikasleak gai honetarako ezarritako gaitasunak eskuratuak izatea, enpresaren ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratzeko-maila adierazi behar du kalifikazioak.



Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie hauei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea, eskemak, marrazkiak, grafikoak, etab., eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango da. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehieneko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoaren analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoen arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.



(2022koa OHIKOA) EMAITZAK / RESOLUCIÓN (ORDINARIA 2022)

1)

a)

ETE: 250 langile baino gutxiago dituzten enpresak, urteko negozio-bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez dutenak edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez dutenak.

Lanbide arteko gutxieneko soldata: (LGS) finkatzen du langileak legezko lanaldiari dagokionez jasoko duen gutxieneko ordainsari-zenbatekoa. Gobernuak urtero arautzen du, ordezkari handieneko sindikatuei eta enpresaburuen elkarteei kontsulta egin ondoren.

Ezkutuko ekonomia: aitortzen ez diren eta administrazio publikoen, ogasunaren, kontrolatik ihes egiten duten jardura ekonomiko guztien multzoa da. Kasu honetan, langile bat legez ez kontratatzeari buruz ari gara; langile horrek bere lana egiten du eta kopuru bat ordaintzen zaio lan horrengatik, ezkutuan.

b)

Erantzun irekia. Galderaren helburua da ikasle bakoitzak ahalik eta hobekien argudiatzea bere erantzuna zentzu batean edo bestean.

2)

DATUAK:

$$KF = 8.000\text{€}$$

$$KA_U = 5\text{€}$$

$$P = 12\text{€}$$

$$q_{\max} = 2.000 \text{ menu.}$$

a) ERRENTAGARRITASUN ATALASEA: $DS = GK$

$$Q^* = KF / (P - KA_U) ; \quad Q^* = 8.000 / (12 - 5) = 1.143 \text{ menu.}$$

1.143 unitatetik aurrera, irabaziak edukitzen hasiko da jatetxea.

b) EMAITZA EKONOMOKOA = $p \cdot q - (KF + KA_U \cdot q)$

$$q_{\max} = 2.000 \text{ menús.}$$




$$q_{\max} \text{ aren } \%80a \quad q = 2.000 \cdot 0,8 = 1.600 \text{ menu.}$$

$$\text{EMAITZA} = 12 \cdot 1.600 - (8.000 + 5 \cdot 1.600) = 19.200 - 16.000 = 3.200\text{€}$$

c) Adierazpen grafikoa.

CF, CT y IT



d) $q = 2.000 \cdot 0,40 = 800$ menu.

$$KA_U = 7\text{€} \quad \text{¿}P_{\text{MIN}}\text{?}$$

$$P_{\text{MIN}} = KF/Q + KA_U \quad P_{\text{MIN}} = 8.000/800 + 7 \quad P_{\text{MIN}} = 17\text{€}$$

Jatetxeak duen gehienezko ahalmenaren % 40a zerbitzatu behar du eta kostu aldakorrak 7€tara igotzen badira, gutxienez menua 17€tara saldu behar du kostuak estaltzeko (galerarik ez izateko).

3)

DATUAK

- SS= 50 kilo.
- E 360 = 7.200 kilo.



- Hornikuntza epea = 10 egun
- $Q^* = 600$ kilo $Q^* = 7.200 / 12 = 600$ kilo.
- $T = 30$ egun (Kadentzia)

a) Eskaera puntua

$$E.P. = SS + \text{Hornikuntza epearen kontsumoa} = 50 + E 10$$

$E 10 = E 360 / 360 \cdot 10 = 7.200 / 360 \cdot 10 = 200$ kilo kontsumitzen dira hornikuntza epean.

$E.P. = 50 + E 10 = 50 + 200 = 250$ kilo daudenean egin behar da eskaera, segurtasun stocka erabili behar ez izateko.


b) Batez Besteko stocka

$SS + Q/2 = 50 + 600/2 = 50 + 300 = 350$ kilo daude batez beste biltegian urtean zehar.

c) Errotazio indizea

Errotazio Indizea = $E \text{ urtekoa} / (SS + Q/2) = 7.200 / 350 = 20,57$ aldiz berritzen da biltegia urtea batean zehar.

d) Grafikoa:



e) Eskatera 3 egun atzeratuko balitz:

Segurtasun stocka irauten dituen egunak kalkulatuko ditugu

7.200 kilo ----- 360 egun badira

50 kilo ----- x egun X= 2,5 egun. SSak 2,5 egun iraungo ditu.

Beraz; eskaera 3 egun beranduago heltzen bada, stock haustura egongo da 0,5 egunetan, eta ekoizpena geldituko luke, horrek dakartzan ondorioekin

4)

1.a 2.b 3.b 4.c 5.b 6.c 7.c 8.a 9.c 10.b

5)

BILTEGIA

ARTIKULUA:

METODOA: FIFO



DATA	KONTZEPTUA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		KOPURUA	PREZIOA	BALIOA	KOPURUA	PREZIOA	BALIOA	KOPURUA	PREZIOA	BALIOA
01-05	HASIERAKO							2.000	180	360.000
03-05	SALDU				1.500	180	270.000	500	180	90.000
07-05	SALDU				300	180	54.000	200	180	36.000
10-05	EROSI	2.500	190	475.000				200	180	36.000
								2.500	190	475.000
15-05	SALDU				200	180	36.000	-	-	-
					700	190	133.000	1.800	190	342.000
21-05	SALDU				100	190	19.000	1.700	190	323.000
30-05	EROSI	3.000	200	600.000				1.700	190	323.000
								3.000	200	600.000
31-05	SALDU				1.300	190	247.000	400	190	76.000
								3.000	200	600.000
								3.400		676.000

FIFO irizpidearen arabera biltegian 3.400 unitate daude 676.000€tan baloratuta

ARTIKULUA:

METODOA: BPP

DATA	KONTZEPTUA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		KOPURUA	PREZIOA	BALIOA	KOPURUA	PREZIOA	BALIOA	KOPURUA	PREZIOA	BALIOA
01-05	HASIERAKO							2.000	180	360.000
03-05	SALDU				1.500	180	270.000	500	180	90.000
07-05	SALDU				300	180	54.000	200	180	36.000



10-05	EROSI	2.500	190	475.000				2.700	189.26	511.000
15-05	SALDU				900	189.26	170.334	1.800	189.26	340.668
21-05	SALDU				100	189.26	18.926	1.700	189.26	321.742
30-05	EROSI	3.000	200	600.000				4.700	196.12	921.742
31-05	SALDU				1.300	196.12	254.956	3.400	196.12	666.808
								3.400	196.12	666.808

BPP irizpidearen arabera biltegiak 3.400 unitate daude 666.808€tan baloratuta

6)

Proiektua	D_0	F_1	F_2	F_3
A	75.000	23.000	37.000	45.000
B	50.000	12.200	15.900	35.000

➤ A Proiektua:

$$F_1 = 35.000 - 12.000 = 23.000 \text{ €}$$

$$F_2 = 52.000 - 15.000 = 37.000 \text{ €}$$

$$F_3 = 55.000 - 25.000 + 15.000 = 45.000 \text{ €}$$

➤ B Proiektua:

$$F_1 = 25 \times 1.200 - 17.800 = 12.200 \text{ €}$$

$$F_2 = 25 \times 1.300 - 16.600 = 15.900 \text{ €}$$



$$F_3 = 25 \times 2.400 - 25.000 = 35.000 \text{ €}$$

a) Berreskuratze-Epea

A proiektua

- Hasierako despoltsapena: 75.000 €
- Metatutako kutxa fluxua 1. urtean 23.000 €; hasierako despoltsapena baino gutxiago.
- Metatutako kutxa fluxua 2. urtean 60.000 € (23.000 € + 37.000 €); hasierako despoltsapena baino gutxiago
- Metatutako kutxa fluxua 3. urtean 105.000 € (23.000 € + 37.000 € + 45.000 €); hasierako despoltsapena baino gehiago.
- 3. urtean 75.000 € - 60.000 € = 15.000 € errekupeartzeko behar duen denbora izango da:

$$45.000 \text{ €} \text{-----} 12 \text{ hilabete}$$

$$15.000 \text{ €} \text{-----} x \text{ hilabete} \quad x = 4 \text{ hilabete.}$$

A proiektuaren berreskuratze-epea 2 urte eta 4 hilabetekoa da.

B proiektua

- Hasierako despoltsapena: 50.000 €
- Metatutako kutxa fluxua 1. urtean 12.200 € (hasierako despoltsapena baino gutxiago)
- Metatutako kutxa fluxua 2. urtean 28.100 € (12.200 € + 15.900 €) (hasierako despoltsapena baino gutxiago)
- Metatutako kutxa fluxua 3. urtean 63.100 € (12.200 € + 15.900 € + 35.000 €) (hasierako despoltsapena baino gehiago)
- 3. urtean 50.000 € - 28.100 € = 21.900 € errekupeartzeko behar duen denbora izango da:

$$35.000 \text{ €} \text{-----} 12 \text{ hilabete}$$

$$21.900 \text{ €} \text{-----} x \text{ hilabete} \quad x = 7,5 \text{ hilabete.}$$

B inbertsio proiektuaren berreskuratze-epea urte 2 eta 7,5 hilabetekoa da.

Berreskuratze-Epea irizpidearen arabera, A proiektua aukeratuko beharko luke, inbertitutakoa lehenago berreskuratuko bailuke B proiektuarekin baino.

b) BEG:

$$BEG = -D_0 + F_1/(1+k)^1 + F_2/(1+k)^2 + F_3/(1+k)^3$$

$$k = (i + g) + (i \cdot g) \quad k = (0,02 + 0,07) + (0,02 \cdot 0,07) \quad k = 0,0914$$



$$A \text{ proiektua} = -75.000 + \frac{23.000}{1,0914} + \frac{37.000}{1,0914^2} + \frac{45.000}{1,0914^3}$$

$$A \text{ proiektua} = -75.000 + 21.073,85 + 31.062,31 + 34.614,71$$

$$\underline{A \text{ proiektua} = 11.750,87 \text{ €}}$$

$$B \text{ proiektua} = -50.000 + \frac{12.200}{1,0914} + \frac{15.900}{1,0914^2} + \frac{35.000}{1,0914^3}$$

$$B \text{ proiektua} = -50.000 + 11.178,30 + 13.348,40 + 26.922,55$$

$$\underline{B \text{ proiektua} = 1.449,25 \text{ €}}$$

BEG (A) BEG (B) baino handiagoa denez, BEG irizpidearen arabera A proiektua aukeratuko beharko luke, errentagarriagoa delako.

c) Bi irizpideetatik, Egungo Balio Garbiarena da egokiena. Berreskuratzeko Epearen kasuan ez bezala, kontuan hartzen ditu, alde batetik, diruaren balioa (inflazioa) eta, bestetik, eskatutako gutxieneko errentagarritasuna. Gainera, Berreskuratzeko Epearen ondorengo kutxa-fluxuak hartzen ditu kontuan. Berreskuratzeko epeak ez du kontuan hartzen diruaren balio-galera, ezta PAY BACKen ondorengo diru-sarrerak ere.

7)

Erosketa-data = Otsailaren 1a; Salerosketa = 10.000 akzio;

Akzio baten erosketa-prezioa = 50 €

Salmenta-data = Uztailaren 31; Dibidendua = 2 €/akzio;

Akzio baten salmenta-prezioa = 70 €

Gainbalioa = Salmenta – Erosketa = (10.000 x 70) – (10.000 x 50) = 200.000 €

Etekina = Gainbalioa + Dibidendua = 200.000 + (2 x 10.000) = 220.000 €

Inbertsioa = Erosketa kostua = 10.000 x 50 = **500.000 €**



6 hilabeteko errentagarritasun-tasa = (Epealdiaren etekina / Egindako inbertsioa) x 100 = $(E_t / I_0) \times 100 = (220.000/500.000) \times 100 = \%44$

Urte bateko errentagarritasun-tasa

$$X \frac{\%44}{6 \text{ hilabete}} = X \frac{\%88}{12 \text{ hilabete}} \quad X = \%88$$

8)

a) EGOERA BALANTZEA

AKTIBO		ONDARE GARBIA eta PASIBOA	
AKTIBO EZ KORRONTEA	230.500	ONDARE GARBIA	149.100
<ul style="list-style-type: none"> IBILGETU ukiezina IBILGETU Materiala 230.500 Makineria: 73.000 Eraikuntza: 150.00 Altzariak: 7.000 Info.prozt. ekip.:3.500 I.M.A.M. (-3.000) 		Kapital soziala: 144.100 Erreserbak: 5.000	
		PASIBO EZ KORRONTEA	80.000
		Epe Luzeko Zorrak	
		Kred.erak. epe luzerako zorrak: 80.000	
AKTIBOA KORRONTE	19.600	PASIBO KORRONTEA	21.000
<ul style="list-style-type: none"> IZAKINAK 10.000 Produktu bukatuak 1.0000 ZORDUN KOMERTZIALAK ETA EPE LAB. FINANTZA INBERTSIOAK 1.000 Bezeroak..1.000 ESKUDIRUA 8.600 Bankua: 8.000 Kutxa: 600 		<ul style="list-style-type: none"> Epe lab. ZORRAK 14.500 Kreditu-erak. Epe lab. Zorrak.:9.000 E/La. Ibilgetu-hornitzaileak: 5.500 HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTZ. BESTELK. 6.500 Hornitzaileak 4.000 O.P. hartzekoduna 1.000 G.S. hartzekoduna 1.500 	
AKTIBOA guztira = 250.100		PASIBO eta ONDARE GARBIA guztira = 250.100	

Kapital Soziala =250.100– 5.000 – 80.000 – 21.000 = 144.100 €

b)

AKTIBO EZ KORRONTEA 230.500		ONDARE GARBIA + PASIBO EZ KORRONTEA 229.100
AKTIBOA KORRONTE 19.600	MANIOBR.	PASIBO KORRONTEA 21.000



Maniobra-fondoak enpresaren finantza-oreka zehazten du.

Maniobra-fondoak = Aktibo Korrontea – Pasibo Korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea

Maniobra-fondoak = 19.600 – 21.000 = (149.100 + 80.000) – 230.500 = - 1.400 €.

Eraitza negatiboa da, finantza-egoera ez da ona. Maniobra-funtza zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gaitasun handiagoa izango du enpresak epe laburreko zorrei aurre egiteko. Eta kasu honetan hori ez da gertatzen, pasibo korrontea 1.400 € finantzatzen dizkio aktibo ez-korronteari, pasibo ez-korrontea ez delako gai aktibo ez-korrontea osorik finantzatzeko, eta are gutxiago aktibo korriente iraunkorreko elementuak, adibidez biltegiko segurtasun-stocka. Enpresak arazoak ditu epe motzeko zorrak ordaintzeko.

c)

$$\text{LIKIDEZIA} = \frac{\text{Aktibo korrontea}}{\text{Pasibo korrontea}} = \frac{19600}{21000} = 0.93$$

Likideziari dagokionez, epe laburrera zor duen euro bakoitzeko aktibo korrontean 0.93 euro ditu soilik, erreferentzia tartetik kanpo, 1 baino txikiagoa da, beraz enpresak arazoak izango ditu epe laburreko zorrak ordaintzeko, ordainketa etendurako arriskua du. Enpresa ez da fidagarria.

$$\text{AUTONOMIA} = \frac{\text{Ondare Garbia}}{\text{Pasibo osoa}} = \frac{149100}{80000 + 21000} = 1.48$$

Autonomia 1.48 izanik, enpresak erabiltzen duen besten euro bakoitzeko, finantzaketa propioak 1,48 euro erabiliko ditu. Ratioa erreferentzia tartean dago 0.8 - 1.5, ondorioz autonomia dauka.

$$\text{BERMEA} = \frac{\text{Aktibo osoa}}{\text{Pasibo osoa}} = \frac{250100}{80000 + 21000} = 2.48$$

Hartzekodunek kontatzen duten kobratzeko bermeari egiten dio erreferentzia, ratioa 1 baino handiagoa izan behar da. Bermeari dagokionez, ratioa 2.48 izanik. Enpresak 2.48 euro ditu zorraren euro bakoitzeko aktiboan, beraz ez du kiebra arriskurik. Berme ona eskaintzen du.

$$\text{ZORPETZE} = \frac{\text{Pasibo osoa}}{\text{Ondare Garbia}} = \frac{80000 + 21000}{149100} = 0.68$$



Enpresa ondo egongo da ratioa 1 baino txikiago denean, kasu hoetan 0,68, enpresa honek ondare garbian duen euro bakoitzeko 0.68 ditu zorretan. Enpresak zorrak eta ondare garbia orekatuta ditu. Inbertsio-erabakiak hartzerakoan ez dago baldintzatuta, momentuz

Enpresa honek likidezia gutxiegi du beraz, epe laburreko zorrak birnegoziatu beharko luke epea luzatuz.

9)

Zuzeneko zergak, zuzenean zergapetzen dituzte herritarren diru-sarrerak edo ondarea. Beste era batera esanda, zuzeneko zergak izen-abizenak dituen pertsona bakoitzari dagozkio, hau da, zerga ordaindu beharko duen herritarrari. Beraz, diru gehien duenak gehiago ordainduko du.

Zeharkako zergak, pertsona batek zerbait kontsumitzeagatik edo erabiltzeagatik ordaindu behar dituen zergak dira. Herritar guztiei berdin eragiten diete. Hau da, denek ordaintzen dute zergaren ehuneko bera, errenta-maila edo erosteko ahalmena edozein dela ere. Hau da, ez dute zuzenean eragiten zergadunaren errentan, egiten duen kontsumoan baizik. Zeharkako zergen barruan, kontsumoa zergapetzen dutenak bereizi behar ditugu, ezagunenak baitira, eta horietan BEZ (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) eta zerga bereziak bereizi behar dira, horiek baitira alkohola, tabakoa, autoen matrikulazioa, erregaia eta abar zergapetzen dituztenak.

Zerga-politika aurrerakoi bat norik gehiago irabazi gehiago ordaintzean oinarritzen da. Zerga bat progresiboa da zerga-tasak (pertsonek ordaindu beharreko kopurua) aitortutako kopurua baino handiagoa direnean. Aitortutako balioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ehuneko handiagoa ordaindu behar du. Horren adibide garbia da errenta-aitorpena: ehuneko handiagoa ordainduko da, aurreko urtean lortutako irabazia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa. Zerga progresibo nagusiaren adibide nagusia PFEZ da.

Zuzeneko zergak zuzenean zergapetzean, progresiboak izan daitezke. Beraz, diru gehien duenak gehiago ordainduko du. Horrela aberastasuna birbanatzeko balio du. Izan ere, aberastasunaren adierazpena zuzenean zergapetzean, gehien dutenek gehiago ordain dezaten antola daitezke, eta hori ezin da zuzenean egin zeharkako zergekin, BEZarekin adibidez, non denek ordaintzen duten gauza bera ehunekotan.

Kostu finkoak. Enpresak ekoizpen-mailatik (ekoiztu edo ez) aparte dituen kostuak dira; oso garrantzitsuak dira, enpresa baten finantzaketa-beharrak kalkulatzeko aukera ematen duelako, bai negozio bati ekiteko, bai erabat funtzionatzen ari denean. Kostu finkoen adibidea: lokalaren alokairua, argia, ura, telefonoa, aseguruak, langileen soldata (1 edo 5 ekoizten bada, ordaindu egin behar zaie)...



Kostu aldakorrak. Enpresa batean garatzen den produkzioaren arabera aldatzen diren kostuak dira. Hau da, kostua handitu edo txikitu egin daiteke produkzio-bilakaeraren arabera. Enpresaren ekoizpen-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago handituko dira kostu aldakorrak. Enpresaren produktibitate-maila jaisten bada, kostu aldakorra ere jaitsi egingo da. Kostu aldakorren adibidea: lehengaiak, aldi baterako eskulanaren soldata produkzioaren gehikuntzagaratik, garraioa

Kostuak guztira = kostu finkoak + kostu aldakorrak

2022